# UPV/EHUko GERENTEAREN 2016ko URRIAREN 5eko ERABAKIA, "ZEINU BIDEZKO INTERPRETAZIOAN TEKNIKARIA" IZENEKO LAN-POLTSA OSATZEKO HAUTAKETA-PROZESUA BEHIN BETIKOZ EBAZTEKO DENA. LAN- POLTSA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ALDI BATERAKO BEHARREI ERANTZUTEKO DA.

UPV/EHUko gerentearen 2016ko otsailaren 19ko erabakiaren bidez dei egin zen, "Zeinu bidezko Interpretazioan Teknikaria" izeneko lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesua egiteko, administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren berezko premiak aldi baterako bete daitezen.

Deialdiaren zazpigarren oinarriak ezarritakoarekin bat etorrita, hautaketa-prozesua behin amaiturik, epaimahaiak ordenatu zituen lehiakideak, eta proposamen hori 2016ko abuztuaren 29an eman zen argitara seigarren oinarriaren seigarren atalean zehaztutako tokietan eta, honen ondoren, deialdiak dioenari jarraiki, zerrenda igorri da Gerentziara prozesua ebazten duen behin betiko erabakia eman dezan.

Epaimahaiaren erabakiaren kontra gorako errekurtsoa aurkeztu ahal zitzaion EHUko gerenteari, erabakia argitaratu eta hilabeteko epean.

Erreklamazio egiteko zabaldutako epean ez da helegiterik aurkeztu. Beraz, Gerentziak, errektorearen 2013ko urtarrilaren 30eko erabakiaren bidez (otsailaren 13ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

## ERABAKI DU

**Lehenengoa**.- "Zeinu bidezko Interpretazioan Teknikaria" izeneko lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesuaren emaitzak onartu eta behin betikotzat jotzea, epaimahaiak proposaturiko ordenazioaren arabera, 2016ko abuztuaren 29an argitaratuta.

**Bigarrena**.- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, baina interesatuak berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke Gerentziari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezake zuzenean administrazio-auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean. Erabakia UPV/EHUren web orrian (Administrazio eta zerbitzuetako langileak, Hautaketa eta Hornikuntza) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontatzen epe horiek.

Leioan, 2016ko urriaren 5ean.

Errektoreak 2013ko urtarrilaren 30ean eskuordetutako eskumenak erabilita (2013ko otsailaren 13ko EHAA)

GERENTEA

GERENTZIA GERENCIA
eman ta zabal zazu
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

**Miren Lorea Bilbao Artetxe**